

MEMORIA
LABURPENA 2018

© Juan Medina



MUNDUKO MEDIKUAK EUSKADI

GAIXOTASUN GUZTIEI EGITEN DIEGU AURRE, BAITA INJUSTIZIARI ERE

Nortzuk gara

Médicos del Mundo nazioarteko elkarte humanitarioa da, boluntariotzakoa, pertsona guztiak duten osasunerako eskubidea efektibo egiteko lan egiten duena, bereziki pobrezia, genero ekitate eza eta gizarte bazterketa egoeran edo humanitate krisien biktima direnena. Osasun arretaren bidez, salaketaren, testigantza eta ekintza politiko eta sozialaren bidez.

1980 Médecins du Monde Frantzia sortu zen

1990 Médicos del Mundo España sortu zen


1995 Munduko Medikuak Euskadi sortu zen

Médicos del Mundo nazioarteko sareak dauden lekuan daudela zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen mediku-arreta emateko xedea duten 16 erakunde barne hartzen ditu. 2018an aurrera eramane ziren: 340 proiektu 75 herrialdetan - 146 nazioarteko proiektu 60 herrialdetan.

Garapenerako lankidetzan lan egiten dugu, herrialdeko osasun egiturari sartzeko diren epe luzerako proiektuak eramanez. **Humanitate Ekintzan** premia jarduten dugu guda, gaixotasuna edo natura hondamenak pairatu dituzten lekuetan.

Munduko Medikuak elkartearen egoitzak bertokoeekin ere egiten du lan, **kolektibo zaugarriekin**, batez ere osasun sistema publikoan sartzeko zailtasunak dituztenekin.

Boluntarioen konpromisoaren bidez eta beste mugimendu sozial batzuekin batera, aldaketa sozialarekin konprometitutako herritar globalentzako kontzientzia kritikoak sortzeko prozesuak laguntzen ditugu.



GARDENTASUNA

Bazkideek gidatzen duten elkarte gara, borondatez parte hartzen dutenak, mantentze ekonomikoan lagunduz eta erakundearen ekintzen gaineko erabaki estrategikoak hartuz.

ARRETA ETA SALAKETA

Eskubideak urratu zaizkien pertsonen arreta emateaz gain, bidegabekeriak sortzen dituzten arrazoiak salatu, eta, egoera horiek aldatzeko, gobernuei presioa egiteko ekintzak sustatzen ditugu.

NORTZUK GARA MUNDUKO MEDIKUAK

62 :: ELKARTUTAKO PERTSONAK
:: (39 emakume eta 23 gizon)

134 :: BOLUNTARIOAK
:: (88 emakume eta 46 gizon)

11 :: KONTRATATUTAKO
PERTSONAK
:: (8 emakume eta 3 gizon)

1.350 :: IDELIZATUTAKO EMAILEAK
:: (851 emakume eta 499 gizon)

45 :: KOLABORATZEN DUTEN
ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA
PRIBATUAK

Urteko analisia

Espanian osasunaren gaineko eskubideari buruzko Konstituzio Auzitegiaren 134/17 epaiak gizarteko talde zaugarrienen aurkako osasun bazterketa sakontzen du, eta pertsona horien bizitza arriskuan jartzen du.

Beste behin ere, Munduko Medikuek erakundean Osasunerako Eskubidea defendatzen eta bidegabekeriak salatzen jarraitzen dugu. Uztailean gobernuak 7/2018 ELD onartu bazuen ere, zeinaren xedea osasun asistentziaren unibertsaltasuna baitzen, hutsuneak ditu (asiloa eskatzen duten pertsonak, familiarekin biltzeko prozesuan dauden adinekoak...), eta larriena da ezarri gabe jarraitzen duela, ez baita argitaratu garatuko duen Araudia. Beraz, autonomia erkidegoek euren interpretazioen arabera jarduten dute, eta batzuk oso mugatzaileak dira.

Eusko Jaurilaritzak, osasun asistentziaren estaldura zabaltzeko egin zuen ahalegin batean, Osasuna babesteko, gaixotasunaren prebentziorako, osasuna sustatzeko eta administrazio egoera irregularra duten pertsonen osasun arretari buruzko programa integrala onartu zuen. Hala ere, neurri hauek ez dira nahikoak; osasun sistematik at dauden pertsonen arreta ematen jarraitzen dugu, erroldatu ezin dutelako edo Schengen espazioan euren egoitza egiaztatzen duten paperak ez dituztelako. Baina, gainera, pertsona askok osasun arretarako duten eskubidea urratuta dutela ikusten jarraitzen dugu, exijitutako baldintzak betetzen dituzten arren, ezagutzen ez dutelako edo arreta ematen dietenen utzikeria dela eta.

Bereziki arduratzen gaitu osasun asistentzia lortu ezin duten pertsonen sendagaiak lortzeko duten zailtasuna (bereziki, Arreta Sozio-sanitarioko Zentroan, CASSIN, arreta

ematen diegune). Arduradun politikoekin bilerak izan arren, denborak aurrera jarraitzen du, eta oraindik ez dugu arazo honen konponbiderik.

Gainera, adierazpen arrazista eta xenofoboak ematen diren testuinguru batean gaude, eta, bitartean, guk kultura artekotasunaren eta gizarteratzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu.

Aurtengoa Egoitza Estrategia eta ildo ezberdinak zehazteko urtea ere izan da. Horrekin, Euskadi osoan Osasunerako Eskubidea azpimarratu nahi dugu are indartsuago.

2018an Bihotza Sariak izeneko Osasun Saria jaso genuen, komunikabideek Bilbo eta Bizkaiko enpresa, profesional eta erakundeei egiten dieten aitortpena, duten bihotz handia dela eta azpimarragarriak izan direnak.

Osasuna. **Bihotza**
Bihotza Salud

Munduko Medikuek

Sariak
Bihotza
Sariak'18

Komunikabideek Bihotza duten Erakunde eta profesionalak



Gizarte mobilizazioa

Munduko Medikiak Euskadik lan egiten du ez bakarrik pertsona guztiak osasunerako duten eskubidea ez lortzearen injustiziak sortzen dituen kalteak konpontzeko, baizik eta aldaketa sozial baten alde, etorkizunean eskubide hau bermatua izan dadin. Aldaketa hau Munduko Medikiak erakundeak gizarte mobilizazioaren bidez sustatzen duen aldaketa da, ildo nagusi hauek dituen: gizartea eraldatzeko hezkuntza eta sentsibilizazioa.

Gizarteratze eta Nazioarteko Lankidetzako gure proiektuetako eskubideen titularrak direnen esku-hartzearen bidez, informazio zuzena lortzeko aukera dugu, egungo errealitatea pertsona zaurgarrienen ikuspegitik ezagutzeko aukera ematen

diguna, eta, beraz, gizarte aldaketarako lan-estrategia bat elikatu eta eraikitzeko, erantzukizunen titularrak diren pertsonetara bideratutakoa, hala nola gizarte zibila, komunikabideak, gizarte, osasun eta hezkuntza eremuko profesionalak, eta betebeharren titularrak, erakunde publikoak, besteak beste.

Munduko Medikiak Euskadik, **boluntarioen** elkarrekin den aldetik, herritarrei gizarte aldaketaren protagonista eta partaide izateko aukera ematen die, euren esperientzia propioaren eta bizipen pertsonalaren bidez. Modu honetan, asoziazio eta parte-hartze balioen bidez, herritartasun aktibo eta konprometituen garapenean lagundu nahi dugu.



2018KO BOLUNTARIOTZA TOPAKETA, LEKEITIO (BIZKAIA).



OTSAILAK 6, EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOAREKIKO ZERO TOLERANTZIAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

SENTSIBILIZAZIOA

Gai askori buruzko gure sentsibilizazio ekintza eta jarduerak, Giza Eskubideen inguruan herritarrak kritikoak izatera bideratutakoak, batez ere Osasunerako Eskubidearekin.

2018an, Euskadin afrikarrekin, osasun, gizarte zerbitzuen eta hezkuntza arloko profesionalekin eta herritarrekin orokorrean **Emakumeen Mutilazio Genitalaren** prebentzio eta sentsibilizazioaren eremuan egindako lana azpimarratu beharra dugu. Argazki erakusketen, formazio tailerren, hitzaldien, bideo-forumen, jardunaldien, azoketako parte-hartzeen eta kaleko ekintzen bidez.

Lantzen jarraitu dugun beste gauza bat izan da **Pertsonen Salerosketaren**

inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa, herritarrekin orokorrean, batez ere osasun, gizarte zerbitzuen edo hezkuntza alorreko profesionalekin. Bereziki, pertsonen Salerosketa horren helburua sexuala denean, emakumeen aurkako indarkeriaren muturreko adierazpen bezala.

Euskaldunak gure lurraldean bizi diren migratzaile eta errefuxiatuen egoeraren gainean sentsibilizatzeko, Euskadin **“Mugitzen diren pertsonak”** kanpaina garatu dugu. Proiektuak immigrazioaren irudia eta estereotipoak landu ditu, pairatzen dituzten eskubideen urraketak ikusaraziz migratzaileen beraien testigantzen bidez, gazteen eta eremu sozio-sanitario eta hezkuntza eremuko profesionalen ezagutza handituz, eta herritarrek parte hartzeko espazioak sustatuz.



“EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA ETA SALEROSKETA” JARDUNALDIRAKO IRUDIA.

WWW.PERSONASQUESEMUEVEN.ORG

GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA

Aurten, Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza proiektuak handitu dira hezkuntza eremu formal eta informaletan, aldi berean eskola zentroen, erakunde publikoen, elkarteen eta abarren testuinguru komunitarioa ere sartuz.

Honi dagokionez, **Aldaketak ehunduz** proiektua azpimarratu behar dugu. Programa honekin, Otxarkoaga-Txurdinagako (Bilbo) bigarren hezkuntzako bigarren zikloko eta batxilergoko ikasle eta irakasleak Giza Eskubideen eta Generoaren gainean gogoeta egitera eta ekitera bultzatu nahi izan ditugu, gizartea eraldatzeko abiapuntu bezala eta nerabeen Sexu eta Erreproduzio Eskubideen garrantziaren

gainean kontzientzia hartzeko testuinguru global batean euren parte-hartzetik eta gizarte mobilizaziotik aldaketak eragiteko sexu eta harremanen jokabidean, eta Gizateria Globalaren Osasun eta Garapenaren berme gisa.

Gasteen artean migratzaileenganako jarrera positiboak eta gizarte eraldaketan parte-hartze aktiboa sustatzeko, 2018an **“Mundua mugimenduan, eskubide kontua da”** programarekin jarraitu dugu. Horren bidez, San Adrian BHIIn (Bilbo) kontzientzia kritikoa sortu nahi izan dugu, eta pertsonen arteko berdintasunaren gainean eta giza eskubideen unibertsaltasunaren gainean sentsibilizatu, batez ere Osasun Globalaren eskubidearen eta hura eskuratzearen gainean, eta migrazioari eta babes eta ostatu eskatzaileei buruzko klixek, estereotipoak eta aurreiritziak baliogabetzen saiatu gara.



TEJIENDO CAMBIOS

ALDAKETAK EHUNDUZ.
WWW.ALDAKETAKEHUNDUZ.ORG

CONVERSATORIO
**ACTIVISMO EN LAS REDES,
OTRA FORMA DE ENFRENTAR
LAS VIOLENCIAS**


Compartiendo estrategias y prácticas comunicativas

Desirée Bela-Lobedde / La Psico Women / Irantzu Vitoriano
Programa Círculo / Iñire Estébanez y Estibaliz Linares

01.06.2018 · 18:00 - 20:15
Boluntá, Salón de actos (entrada por Zabalvide II Bilbao Plaza)

ORGANIZA  FINANCIA

JARDUNALDI PUBLIKOA, 2018KO
EKAINAREN 1EAN, BOLUNTAN (BILBO).



GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA ESTRATEGIA (H)ABIAN 2030, GARAPENERAKO LANKIDETZAKO EUSKAL AGENTZIAREN A.



TAILERRA SAN ADRIAN BHIIn (BILBO).

Gizarteratzea

Gizarteratze eremuaren xedea da zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen osasuna eskuratzeko duten eskubidea eraginkor egitea. Zentzu horretan, gure lan eremua bi herritar taldetan oinarritzen da: **gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden atzerritarrak, eta drogazaleak.**

Immigrazioa

Immigrazioaren eremuan eta Komunitateko Esku-hartze eta Immigrazio programen bidez, esku-hartze ildo ugari landu ditugu.

Batetik, **HARRERAREN** ildoan atzerritarrak harrera gizartean integratzea sustatzen dugu, immigranteentzako arreta

sozio-sanitarioko zentroaren bidez (CASSIN), formazio espazioen, espazio informatiboen, laguntzen, banakako arretaren eta abarren bidez. Era berean, erantzukizunen titularrekin esku hartzen dugu atzerritarrenganako hautemateak eta tratua aldarazteko.

Bigarrenik, **BIZIKIDETZA** lantzen dugu, bertako bizilagunen eta atzerritarren arteko bizikidetza erraztu eta sustatzeko, ezagutzan, ulermenean eta kulturen arteko errespetuan oinarrituta, batez ere hezkuntza eremuan eta gazteen artean. Komunitatearen osasuna hobetzeko ezagutzak lortzea ere sustatu eta indartzen dugu, osasunaren gizarte zehaztapenei ekinez.



ARRAZAGATI KO DISKRIMINAZIOA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA 2018KO MARTXOAREN 21A.

Era berean, **GENEROAren** ildoaren aldeko apustua egin dugu, genero ekitatea eta aniztasun sexualaren aldeko errespetua sustatzeko asmoz. Zentzu horretan, bigarren hezkuntzako inguruetan lan egiten dugu, belaunaldi ekitatiboagoa sortzeko, gizonen eta emakumeen taldeekin eta talde mistoekin.

Beste lan ildo bat da **BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA**, immigranteen kontrako jarrera eta hautemate diskriminatorioak murrizteko hezkuntza eremuan egindako formazioen bidez, gazteekin; elkar ezagutzeko eta gizarte sensibilizaziorako, zurrumurrak eta estereotipoak jorratuz eskolatik, baina baita erantzukizunen titularrak direnekin ere.

EUSKADIN

2.929 : **EGINDAKO GIZARTE ETA OSASUN ESKU-HARTZEAK** (1.661 emakumeei)

229 : **EGINDAKO FORMAZIOAK**
osasun sisteman sartzeari buruzkoak, sexu eta erreproduktzio eskubideei, maskulinitate berriei, aniztasun kulturalari, kultura arteko bizikidetzari, osasun fisiko eta psikologikoari, eta abarri buruzkoak.

30 : **OSASUN ZENTROETARA LAGUNTZEA**

PARTE-HARTZE ildoak atzeritarren elkarteetan asoziazio bizitza sustatu eta indartu nahi du, bereziki emakumeena, gizarteratze eta integrazio dinamikak sortzeko.

Azkenik, **GIB/HIESaren** prebentzioa lantzen dugu, formazio tailerren bidez eta proba azkarrak eginez.

Drogak

Drogen eremuan, kontsumoari lotutako arrisku eta kalteak murrizteko lan egiten dugu, bai drogen eremuan lan egiten duten profesionalekin, baita erabiltzaileekin ere, formazio espazioen bidez.

36 : **JASO ETA SALATUTAKO OSASUNA ESKURATZEKO URRAKETAK**

96 : **FORMATUTAKO EREMU SOZIO-SANITARIOKO PROFESIONALAK**, atzeritarrek osasuna eskuratzearen eremuan

1.091 : **RRETA EMANDAKO PERTSONAK** (637 emakume eta 454 gizon)

59 : **NAZIONALITATE EZBERDINAK** (arreta emandako pertsonen jatorria)

Nazioarteko lankidetzaz

Euskadiko egoitzaren lankidetzaz eremuaren helburua egoitza inguruarekin konektatzea da, beste herrialde batzuetan garatutako jarduerak hurbilduz euskal gizartearen sensibilizazioa lortzeko, baita erakundeen aurrean dugun eragin politikoa lantzeko ere.

Eragin politikoa lantzeko asmoz parte hartu genuen Bilboko Udaleko Lankidetzaz Batzordean, eta bilerak izan ditugu Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Lankidetzarako Euskal Agentziarekin, deialdietako irizpideak eta lehenetsiak ezagutzeko.

2017ko Garapenari eta Ekintzaz Humanitarioari buruzko Txostena ere

aurkeztu dugu Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean eta Bizkaiko Medikuen Elkargoan.

2018. urtean harreman zuzena izan dugu Senegaleko koordinazioarekin, Pikine eremuan garatutako proiektuarekin kolaboratzen jarraitzeko: *“Pikineko herritar zaugarriengan sexu eta erreproduktzio eskubideak sustatu eta indartzea, Dakarreko kanpoaldeko auzoetako osasun zerbitzuak hobetuz”*.

2018ko abenduan **La Jaima Viajera** proiektua inplementatu genuen, Irizar enpresak emandako dirulaguntza batekin. Helburua: egoitza autonomikoaren eta



SAHARA © Nacho Cosío

landaren arteko lana hurbildu, eta, kasu zehatz honetan, Saharako errefuxiatuen kanpaleketan Munduko Medikuak Euskadiko egoitza autonomikoan egindako sentsibilizazio lana erakustea izan zen. Proiektu hau Bizkaian 2017an egindako **¿Saharai? Bai** proiektuaren jarraipena izan zen. Programak Euskadin dauden sahararren elkarteekin harremanetan jartzeko aukera eman zigun, eta nazioarteko komunitateak Saharako herria alde batera utzi duela gogoratzen jarraitzeko beharra ikusi genuen.

Proiektua Munduko Medikuak erakundearen egoitza autonomikoaren Lankidetzaren Boluntarioko Taldeak aurkeztu eta gauzatu zuen.

Abenduko lehen astean, lankidetzaren taldeko zenbait kide kanpaleketara joan ziren, Euskadin Saharako errefuxiatuen kanpalekuei buruz egindako sentsibilizazio lana partekatzeko, emakume eta gazteen testigantza berriak jasotzeko eta 2019an erakutsiko den argazki erreportaje bat egiteko.

Proiektua Osasun Hitzarmen eta Koordinazio Mahaian parte hartuz egin zen, bai eta kanpaina eta Munduko Medikuak erakundeak wilayetan eta Saharako Emakumeen Nazio Batasuneko (UNMS) emakumeekin egindako lana aurkezteko jarduerak eginez ere.



SAHARA © Nacho Cosío

Erakundeekin egindako aliantzak eta ekitaldiak

Funts pribatuak eta aliantzak eskuratzeko eremuak hiru xede ditu: kolaborazio erakundeek espazioak zabaltu, parte-hartze soziala errazteko; elkartearen independentzia handitu, finantziazio iturriak dibertsifikatuz, eta elkarteak Euskadin duen misioa hedatu.

2018an gure lana babesten duten euskal erakundeen **gizarte konpromisoa berritu** da, osasunerako eskubideari buruzko sentsibilizazioan lagunduz, eta **enpresa berriei ongi etorria** egin zaie, euren jasangarritasun estrategietan Munduko Medikuek erakundearen tokiko eta nazioarteko proiektuak sustatzeko lankidetzara barne hartu nahi izan dutenak.

Munduko Medikuek kolaborazio inguru ezberdinetan egon da Ayuda en Acción, Unicef, Vicente Ferrer, Mundukide eta Unesco Etxea bezalako erakundeekin batera, euskal enpresa-ehunean **Garapen Jasangarriko Helburuak** inplementatzen laguntzeko asmoz; era berean, gurea bezalako aliantza batek **GJH 3 Osasuna eta Ongizatea** helburuarekin modu zuzenean lerrokatzea dakarrela igorri nahi izan dugu, baita zeharka lerrokatuta gauden beste batzuekin ere.



OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE
17 OBJETIVOS PARA TRANSFORMAR NUESTRO MUNDO

3 SALUD Y BIENESTAR



GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK
GJH 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA.

NAGUSI IBILALDI NORDIKOA BILBAO EXHIBITION
CENTRE-N (BEC). 2018KO AZAROAREN 11

Gizartean gure lana zabaltzeko, sentsibilizatzea eta Euskadiko proiektuetara bideratutako funtsak lortzeko **ekimenetan parte hartzen** jarraitzen dugu. Tendencias Creativas eta Nagusi Azoketara itzuli gara, Bilbao Exhibition Centre-n, eta Barakaldoko Azoka Solidarioan edo Getxo Folk-eko Espazio Solidarioan egon gara.

Alzola Basque Water-ekin, "Edan Osasunaren alde"; Bizkaiko merkataritza-guneetan, "Establezimendu Laguna"; eta Kurruskuren "Opil bat Osasunaren alde" pertsonalizatutako kanpainak errepikatu ditugu. Kolaborazioak ireki dira zenbait espaziotan, hala nola, Café Vía de Fuga

edo Eroski Artearen Paella Solidarioa. Era berean, beste urte batez, Fair Saturdayn egon gara. Aurtengo edizioan, erakusketak egin ditugu Gernikako Bakearen Museoa eta Getxo Kulturaren Aretoa.

Espazio hauetan guztietan ezinbestekoa da gure konpromiso solidarioa betetzen laguntzen diguten erakundeen **produktu eta zerbitzuak ematea**, ezinbestekoa da ekintza hauetan egoten den **boluntarioaren laguntza**, baita, euren ekarpen txiki baina ugari eta baliagarriekin, ekimen hauetan laguntzen diguten **pertsona guztiena** ere, **"gaixotasun guztiak, injustizia barne" borrokatzen laguntzen digutenak**.



2018ko gure kontuak


MUNDUKO MEDIKUAK EUSKADI: GURE TOKIKO ESKU-HARTZEA

Munduko Medikuek erakundeak egiten duen jarduera oro GGKEK-k ezarritako irizpideen arabera ikuskatua da; izan ere, Koordinakundeak ikuskatzen du misioa eta helburuak betetzen direla, eta, era berean, iturriak eta funtsen erabilera aztertzen ditu. Lealtad Fundazioak ere jarduerari eta finantziarioari buruzko informazioa jaso


behar du. Gainera, erakunde publiko zein pribatuek –eta gure balio propioek– kontuak gardentasun osoz ematea exijitzen digute.



2018ko emaitza



Nora bideratzen ditugun gure funtsak



Eskerrak

Publikoak: Eusko Jaurlaritza ■ Gizarte Gaiak ■ Lankidetzarako Euskal Agentzia ■ Eusko Jaurlaritza ■ Bizkaiko Foru Aldundia ■ Bilboko Udala ■ Barakaldoko Udala ■ BBK Gizarte Lana ■ AECID ■ Obra Social La Caixa Fundazioa ■ Otxarkoagako Mahai Sozioedukatiboa ■ Iralako Mahai Sozioedukatiboa ■ Ametzola eta Iralako Komunitate Osasuneko Mahaia ■ Emakunde ■ Otxarkoagako Formazio Zentroa ■ San Adrian BH

Pribatuak: Aero-Ferr ■ Alzola Basque Water ■ Ategi ■ Getxoko Kultura Aretoa ■ Bilbao Exhibition Centre ■ Bilbao Laratz ■ Cadvision ■ Café Vía de Fuga ■ Club Nordic Walking Bilbao ■ Danobat Group ■ Dena Bilbao ■ Eroski (Artea MG) ■ Eskuz Fisioterapia ■ Euskadi Trek ■ Bizkaiko Arrantza Federazioa ■ Flying Tiger Bilbao ■ Reparto Solidario Fundazioa ■ Ulma Fundazioa ■ Toko tu Boka Antzerki-taldea ■ Puerta de Bilbao Hotela ■ Izar Cutting Tools ■ Irizar ■ Médical Óptica – Audición ■ Gernikako Bakearen Museoa ■ Orona ■ Química de Munguía ■ Repaspán ■ Sareteknika ■ Spa Jardines de Albia ■ Sequio ■ Barakaldo Antzokia

*¡Gracias!
Eskerrik asko!*



*¿Compartimos solidaridad?
Elkartasuna partekatuko dugu?*

*Combatimos todas las enfermedades, incluida la injusticia
Gaixotasun guztiei egiten diegu aurre, injustiziari berari ere*



Nola kolaboratu dezaket Munduko Medikiak erakundearekin?

Munduko Medikiak pertsona guztiek duten osasunerako eskubidearen alde lan egiten duen erakundea da. Munduko Medikiak da 1995etik Médicos del Mundo erakundeak Euskadin duen egoitza, gizarteratzea, sentsibilizazioa, gizartea eraldatzeko hezkuntza eta eragin politikoa lantzen ditugun tokia. Zure kolaborazioak bizitzak alda ditzake. Munduko Medikiak erakundearen lagunduta, zaurgarritasun egoeran dauden, bazterketa egoeran dauden edo natura hondamendien, gosearen, gaixotasunen, guden edo indarkeria politikoaren biktimak diren pertsonak laguntzen ari zara.

ZURE DENBORAREKIN: EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO!

Munduko Medikiak boluntarioen erakunde bat da, ekintzarako eta parte hartzeko espazioa, non bidegabeba den errealitate bat aldatzen lagundu dezakezun. Boluntarioak osasun sistema publikotik baztertutako pertsonen eskubideak defendatzeko borrokatzen dira. Solidarioa bazara eta

mundu justuago baten alde borrokatzeko nahia baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, egoitzan. Zure zain gaudel!

EKONOMIKOKI

Munduko Medikiak erakundeari ekonomikoki lagundu diezaiokezu, modu jarraituan edo puntualki. Egoitzara korreoz txeke izendun bat bidaliz kolaboratu dezakezu, gure kontura transferentzia bat eginez, NAN zenbakia eta posta helbidea adieraziz, email bat bidaliz, egoitzara etorri zure ekarpenarekin, edo, bestela, deitu, eta hitz egingo dugu!

GURE PROIEKTUAK LAGUNDUZ ETA ZABALDUZ

Gure lana ezagutzera gonbidatzen zaitugu, eta zure kontaktuen artean gure kanpainak zabaltzera. Etor zaitez Bilboko Munduko Medikiak erakundera, eta bisitatu Munduko Medikiak erakundearen webgunea eta gure sare sozialak. Facebooken jarraitzera, parte hartzera, edukia partekatzera eta zure iritzi edo iradokizunak bidaltzera animatzen zaitugu.

Munduko Medikiak Euskadi

Bailen 1, etxebaia. 48003 Bilbo | 944 790 322

www.medicosdelmundo.org

euskadi@medicosdelmundo.org | facebook.com/mundukomedikiak

KUTXABANK ES89 2095 0363 5091 0040 4807